

ASTIALDIA > EUSKAL HERRIKO TXOKOAK

Donostiaren historia eta **urguilua**

Urgull magalean eta haren babespean sortu eta hazi den hiria ezagutzeko, merezi du mendia bera ezagutzea, merezi du baita bertako txoko eta bazterretan galtzea ere.

IRUNE LASA
Donostia

Historia eta istorioak kontatzen dituzte harriek. Mendiaren magalean herrixka bat hiri nola bihurtu den ikusi dute. Soldaduak hiltzen... Haurren lehen bihurrikeriak, gazteen lehen laztanak, edadetuen paseo eta berriketaldiak... eta, nola ez, estropadak!

Urgull mendia eta haren bidezidorrak maitatzeko modu bat da eguneroko ibiltariena eta badira beste moduak. Oroitzapenetan oinarritutakoak, adibidez. Haurtzaroen hara egindako txangoak gogoratuko dituzte hainbatek. Edo

mendiaren txoko bat maitatuko duten bereziki, noizbait sosegu bila topatutakoa. Era batera edo bestera, eguraldi on edo ez hain onarekin, maitagarria da Urgull. Lehen bisitaldi batean, gune interesgarri gehienak ezagutzeko moduko ibilaldia egin daiteke bizpahiru ordutan. Dena den, presa-ka ibili gabe eta ikusmira gozatzeko eserita, denborak ihes egiten du.

Denbora izan zen, olatuen eta haizeteekin elkarlanean, 20 metroko lodierako hare mihia osatu eta Urgull lurrarekin elkartu zuena, irla mendi bihurtuz. Mendiaren oin horretan sortuko zen geroago hiri bihurtuko zen herrixka. Nafarroako Erresumaren itsasportua izango zen Donostia, eta Antso XVI.a Jakitunak sorrera agiria 1180. urtean eman zion. Agirian mendiko gazteluaren aipamenik ez badago ere, jada gotorlekua bazegoela pentsatzen da, eta Nafarroan ohikoa zen egitura baten az-tarnak ere topatu dira.

Portuak merkatari eta armadore gaskoiek erakarri zituen, eta haiek eman zioten izena mendiari: Urgull (urguilu). Dirudienez, badi-

ra izen bereko beste hainbat mendi Britainiako kostaldean eta Mantxako Kanalean. Jerseyko irlan dago, esaterako, Orgueil mendia. Gaskoi izenekoak dira ere Donostiako beste hainbat leku izen: Aiete, Txofre, Ulia, Polloe, Miramon, Mompas, Narrika...

Bai portuaren jarduerak hartutako garrantziak bai herriaren kokalekuak (Frantziarako giltza deitzen zioten Espainian) mendia gotortzea eskatuko zuten behin eta berriz urteen joan etorrian. Herria bera ere murruek babestu zuten 1863. urtera arte.

ARKITEKTURA MILITARRA. Mendeak eta gatazkak pilatzen joan ahala, bata bestearen gainean nahastu ziren gotorleku, talaia eta biltegiak. Gailurreko gazteluak ere hainbatetan aldatu zuen itxura. Parke bilakatu den arren, gaur egun, bisitariak garai zehazgabe bateko gerrator-kian dagoela sentituko du.

Merkatari eta armadore gaskoiek eman zioten izena mendiari: Urgull (urguilu)

Ibilaldia nondik hasi aukeratu behar da. Zuloaga plazako sarrera itxita dago gaur egun, San Telmo-ko museoaren obrenatik. Pasealeku Berrikoaz eta Aquariumeko-az gain, Alde Zaharrean daude beste sarrerak: Portuko harresia, Trinitate plazakoa eta Gazteluko igoera. Ordutegia 08:00etatik 18:00ak artekoa da neguan eta 20:00ak artekoa udan.

Kaiaren gainean eskaileretan gora eginda, atetxo bat igaro eta mendiaren mendebaldera zabal-tzen dira bi bide. Azpikoa, Apaizen Pasealekua, portuaren gainean doa, haren ikusmira bikaina eskainiz, baita Injentean kaletik Urgullen barneratzen den harresi zatia-rena. Errege Katolikoen garaitik Donostian inguratzen zuen harre-sitik gelditzen den zati bakarra da, eta portuko ate zena defenditzea zuen xede.

Gaineko bideak Damen Bateria-raino darama bisitaria. Aquariu-

maren gainean eta Santa Klara irlaren parean dago. Kanoiak, paisaia ikusgarria, eta talaia ezin hobe Donostiako Badia eta portua zaintzeko. Eraikinetako bat liburutegi eta Natur Txoko bihurtu dute. Udan bakarrik egoten da zabalik eta batez ere haurrentzako dago egokituta.

eskaileretan gora, eta zeinbat pasabide igaro hartu eta gaztelura bidean Santa Klara gotorlekura iritsiko gara. Eguraldi onarekin taberna zabaltzen dute bertan, garai batean bolborategia zegoen eraikinean; tokia eta paisaia, apartak biak.

Gora egin eta Santiago bateria-ira iristean, ahoa bete hortzekin gelditzeko moduko ikusmirak har-rapatzen du bisitaria. Kontxako Badia azpian, hiria parean eta mendiak, Adarra esaterako, urrutira. Kanoitokiaren zabalgunea, leku bikaina da atseden hartzeko. Santiagoko gotorlekua (mende-baldean), Gobernadorearena (he-goaldean), Bardokaskoa (iparraldean) eta Begiratokiko gotorlekua (ekialdean). Berwickeko dukeak 1719an 20.000 soldadu frantsesekin gaztelua hartu ondoren, babes ho-

Orain arte ia beti itxitako terrazara irten daiteke gazteluko Historiaren Etxetik; ikusgarria



Urgulleko gaztelura igotzen, zaintzarako harritzko etxola eta kanpaientzako tokia. Talaia ezin hobe Donostiako badia eta Donostia ia oso ikusteko. J.C. RUIZ / ARCAZKI PRESS